

① ELHEKETA. Aste hunka bo elhe-fitza.

1. Amak nola hartu zuen Piarres.
2. Piarres etxerat itzuli zelarik zen egun zen?
3. Ontsa lo egun zuena? Eta nola?

② Piarresen Igandea,
Biharramuncan 2

Eta, begiak goseturik ezarriko zituen usain goxo batekin xingar azpia erretzen ari zen artean, hitz laburrez eta parabolarik gabe, an ziozkan amari bezperako berririk larrienak. Ez oro, bainan bai, ama sobera grinarazi gabe erran zitezkenak; gainerakoak, gero noizpeit kondatuko zituen beharbada... bere haurreri, neguko arrats zonbeitez, bainan ez bethi gaur bere amari.

Aita eta bertze haurrideak⁷ ez ziren oinon⁸ etxerat itzuliak, Piarres, bere otruntza eginik,⁹ xutitu zenean, zerbeit lani lothu beharrez hura ere. Bainan, amak, ezti ezti, erran zion, oherat zohakela arrats hartakoarengatik, eta lanari gero begilarte hobea eginen ziola, ondoko egunetan.

Eta oren laurden bat gabe, othoitz on eta labor bat eginik zurrungan gozoki, bi gau hetako loen hartzen ari zen Piarres.

Biharramuncan, —igandea— iguzkia gora zen jada, Piarres atzarri zenean.

Beherean, Marie, arreba zaharrena, sukaldeko lanetan ari zen, haurride gazteenak meza nausirat gero berekin eramateko. Aita-amak, goiz mezan ixil ixila izanik, sorhoaren buruan agertzera zoazin. Ahalke¹⁰... Piarresek zuen orai, igandetako bere atorra Maria emanik, arrebari agur bat erranik, keeta ondoan aita-amak rutzatu zituen. Halako hirri bat —gure eskualdun halako hirri hura— ezpainetan, baztertu zitzaizkon biak, eta, aitek, bere pipa erhien artean harturik, burla maite batean erran zion:

—Zaude zu, Piarres! Zure zurrungak ere ez zaitu naski atzarrara zi eta ez bide nauzu, egun, behien uzartzen aditu!...

—Ezagun da, aita, zuhaur ere, kontrabandan, harramantza¹¹ guti-ekin harat hunat ibiltzen ikasia zirela lehen. Bainan, zu, ama!... Ez nakien... Xuriko bera ere ez othe zin-uten gaur atxemana? Sainga¹² bat ez baitu oraino goiz huntan! Orai, ba, xanpaka,¹³ eta bazter guzietan zalapartaka...

—Ongi egin ere du, haurra. Asko jendeck baino gehiago ezagutza irakusten daukute frangotan gure alimaleek. Lo egitaren beharra bazin-uen, Piarres. Amak erran dauzkit oro. Zoaz beraz deskantsu, zure mezaren entzutera. Sarri arte, eta gero, gaur, tenorez etxera. Goizean goizik, bihar, behar dugu behereko landa hori itzuli,¹⁴ eta barnatik oraino, eta ontsa ongarrizaturik; ezen, akituxea¹⁵ dugu zonbeit urthe hautan. Sarri arte, Piarres.

—Sarri arte, aita; sarri arte, ama!...

③ ADITZ IKASKUNTZA.

31. Erran ziozkan 32. Oherat zoakela
33. Ez bide nauzu 34. Ez zaitu.

31 UKAN. Conjugaison à dble Cplt. Indicatif

Imparfait = Hari = à lui.

- Nik niozkan = nizkion = je les lui avais
Zuk ziozkan = ziozkion = vous les lui aviez
Harek ziozkan = ziozkion = il les lui avait
Guk giozkan = giozkion = nous les lui avions
Zuek ziozkatu = ziozkioten = vous les lui aviez
Heiek ziozkatu = ziozkioten = ils les lui avaient

32. JOAN - Potentiel.

Présent

Imparfait

- | | |
|--------------------------|------------------------------|
| Ni noake (je peux aller) | nindoaken (je pouvais aller) |
| Hi hoake | hindoaken |
| Zu zoazke | zindoazken |
| Hura doake | zoaken |
| Gu goazke | gindoazken |
| Zuek zoazkete | zindoazketen |
| Heik doazke etc. | zoazken |

33. UKAN. Conjugaison transitive à Cplt

direct = pronom personnel. Indicatif =

- Présent - Zuk nauzu = vous m'avez
Harek nau = il m'a
Zuek nauzue = vous m'avez
Heiek nautu = ils m'ont

- Imparfait - Zuk minduzen = vous m'aviez
Harek minduen = il m'avait
Zuek minduzen = vous m'aviez
Heiek minduten = ils m'avaient

Complément direct m' m' m'